


8 AZKOITIA ↔ ZESTOA



Azkoitia eta Zestoa arteko ibilbideak Izarraizko mendigunearen erdigunea zeharkatzen du: inguruko herrien gainean dagoen kareharrizko menditzar izugarria. Urteko edozein aro da aproposa ibilbide hau egiteko, baina irailaren eta udaberriaren hasieran, basoek garai horietan izaten duten kolore bitxiak gozatzeko aukera eskaintzen digute.

Aipatu beharra dago, baita ere, ibilbide hau argitalpen honetan proposatu ditugun zailenetakoa dela. Bestalde, merezi du irtenaldi hau mendiguneko gainen batera igotzearekin konbinatzea.


Gure aholkua da ibilbidea Azkoititik Zestoara egitea. Azkoitian, ibilbidea Balda plazan hasten da. Bertako eskailerak igo eta diagonalean egiten duen bidea hartu behar da. Lehenengo kalea gurutzatu eta gorantz egin behar da zuzenean, PRaren markei jarraiki.

El recorrido entre Azkoitia y Zestoa atraviesa el núcleo del macizo de Izarraitz, una imponente mole caliza que se alza sobre los pueblos circundantes. Cualquier época del año es apropiada para esta excursión, si bien a principios de septiembre o a comienzos de primavera podremos disfrutar del colorido particular que adquieren los bosques en esas fechas. Hemos de saber que este recorrido es también uno de los más exigentes entre los que se proponen en esta publicación. Como idea complementaria merece la pena combinar esta excursión con el ascenso a alguna de las cumbres del macizo. El sentido recomendado de la marcha es de Azkoitia a Zestoa.

Partiendo desde Azkoitia iniciaremos el recorrido en la plaza Balda, ascenderemos por las escaleras de la misma y tomaremos el camino que sube en diagonal; cruzaremos la primera calle y enfilaremos directamente hacia arriba siguiendo las marcas del PR.



Azkoitia



Aittolako atsedenlekua - Área recreativa de Aittola



Aittola - Erlo



Aritza baserria - Caserío Aritza

Ibilbidearen hasieran, gora egin behar da etengabe eta luzaroan, landalurretan barrena hasiera batean eta mendi-mendian ondoren. Ibilbidearen zatirik latzena da, eta bi ordu inguru behar dira Itziar eta Azkarate zein Azkoitia lotzen dituen errepidera iristeko; bertan, landareidiaren aldaketa nabarmena antzematen da berehala, pagadi handiak eta kanpotik ekarritako beste espezie batzuen baso zabalak (besteak beste, pinudiak eta lariztiak) baitaude Izarraizko goiko aldean. Bideari jarraiki, Marikutz putzura helduko gara, 700 metroko garaieran dagoena ia: kondairak dioenez, Mari bertan murgiltzen zen, eta urruneko beste mendi batzuetan agertu. Inguru honetan, bideak errepidearekin bat egiten du une batez, eta Aittolako atsedenlekura heltzen da laster. Bertan, aparkalekutik hurbil, bidearen jarraipena adierazten duen gezia bilatu behar da, beheerantz, Goltzibarrerantz egiten duen bidexka markatzen duena. Haranaren beheko alderainoko jaitsiera nahiko maldatsua da eta, Goltzibarreko erreka heldu ostean, aurrera egin behar da bailararen beheko aldean barrena, bukaeraraino. Ibilbidearen amaiera aldean, bidetik nahiko hurbil, Ekaingo haitzuloa dago, eta amaiera baino pixka bat lehenago, berriz, Lili jauregia, XV.-XVI. mendeetako eraikin itzela. Zestoa bertantxe dago.

Ibilbidea kontrako norabidean (Zestoatik Azkoitira) egitea erabakitzen badugu, berriz, abiapuntua Laiturri izeneko iturria da, Zestoako zubi zaharraren alboan dagoena. Handik, mendebalderantz egin behar da eta Lili jauregiaren ondoan pasatzen den bidea hartu.

El recorrido presenta en una primera parte un largo y continuado ascenso, en un inicio por zonas rurales y luego por plena montaña. Es la parte más dura del recorrido, hasta que alcancemos en cerca de dos horas la carretera que une Itziar con Azkarate y Azkoitia. Aquí, en seguida observaremos un cambio notable en la vegetación, ya que la zona alta del Izarraitz posee importantes extensiones de bosque de hayas y de especies introducidas como el pino y el alerce. Siguiendo el camino nos encontraremos con el pozo de Marikutz, a casi 700 m de altura, en el cual según la leyenda se sumergió Mari para aparecer en otras montañas lejanas. En esta zona el camino se junta con la carretera por un breve tiempo, y pronto alcanzaremos el área recreativa de Aittola. En este punto, cerca del aparcamiento, hay que localizar la flecha que nos indica la continuación del camino, y que dirige su sentido hacia una senda que desciende al valle de Goltzibar situado a nuestros pies. La bajada aquí es muy fuerte hasta el fondo del valle. Una vez alcanzada la regata de Goltzibar avanzaremos por el fondo de valle recorriéndolo en toda su longitud. Hacia el final del recorrido y no lejos del camino se encuentra la cueva de Ekain. Poco antes del final llegaremos al palacio Lili, imponente construcción del siglo XV-XVI, y desde aquí Zestoa nos quedará a tan solo un paso.

Si optamos por hacer el recorrido en la otra dirección, de Zestoa a Azkoitia, el punto de inicio es la fuente de Laiturri junto al Puente Viejo de Zestoa. Desde aquí proseguiremos hacia el oeste y tomaremos el camino que discurre junto al palacio Lili.

Xoxote, Kakueta eta Erloko igoera Ascensión a Xoxote, Kakueta y Erlo

Izarraizko mendigunea kareharrizkoa da eta, horrenbestez, oso karstifikatuta dago. Gipuzkoako mila metrotik gorako mendietatik, Erlo mendia da itsasotik hurbilen dagoena. Bertatik, eta bai Xoxote eta Kakueta tontorretik, Iraurgiko bailara inon ez bezala dago ikusmenean, Urola bailararen erdialdean. Azpeititik eta Azkoititik begiratuz gero, Erlo Gipuzkoa osoko koska erlatiborik handiena da. Aittolako atsedenlekutik, igoera erraza da: PR-Gi 137 ibilbidetik desbideratu eta ordubetean hel daiteke, gutxi gorabehera, gainera. Bailaratik zuzenean igotzea, aldiz, oso bestelakoa da, 950 metroko aldeari egin behar baitaio aurre.

Gailurretik hurbil elurzulo bat aurkitu dezakegu, udan Azpeitian eta Zestoako bainuetxean saltzen zen elurra gordetzeko eraikuntza bitxia; besteak beste, izozkiak eta izotz-edariak egiteko erabiltzen zen elur hori. Xoxoteko gainetik hurbil, berriz, izen bereko aterpea dago; ostatu har daiteke bertan, eta otorduak ere ematen dituzte.

El Erlo es la montaña superior a mil metros situada más próxima al mar de todo Gipuzkoa. Domina como ninguna el valle de Iraurgi, en el Urola medio, y visto desde Azpeitia y Azkoitia se alza como el mayor desnivel relativo del territorio guipuzcoano. El macizo de Izarraitz, de origen calizo y por tanto muy karstificado, posee un conjunto de cimas que nos ofrecen muy variadas y bellas vistas. Desde el área recreativa de Aittola la ascensión es un paseo fácil; desviándonos del PR-Gi 137 en alrededor de una hora podremos llegar a la cumbre. La ascensión directa desde el valle es otra cosa muy distinta, ya que nos obligará a enfrentarnos a un desnivel de casi 950 metros. Cerca de la cumbre existe un *elurzulo* o nevera, curiosa construcción en la cual se guardaba la nieve para venderla en Azpeitia y en el balneario de Zestoa en verano. Uno de sus muchos usos era la confección de helados y granizados en época estival. Próximo a la cima de Xoxote se encuentra el refugio del mismo nombre, en el que se puede pernoctar y que ofrece comidas.

